



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

V. legegintzaldia

Iruña, 2002ko abuztuaren 26a

83 ZK.

A U R K I B I D E A

F SAILA:

Galderak:

- Galdera, Atarrabiako Lorenzo Goikoa ikastetxe publikoa banatzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (2. or.).
- Galdera, gizarteratze- eta laneratze-programa garatzeko lankidetzaz hitzarmenak sinatzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (3. or.).
- Galdera, Lizarrako eskualdea 2002ko martxoaren 7an zainketa berezien unitate mugikorraren zerbitzurik gabe egotearen zergatari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (4. or.).
- Galdera, Lizarrako eskualdean zainketa berezien unitate mugikorraren zerbitzua behin-behinekoz emateko sinaturiko kontratuari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (5. or.).
- Galdera, ospitaleetako larrialdi-zerbitzuetako itzarote-denborei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (5. or.).
- Galdera, Fustiñanako Hidronor zentroan hondakinak tratatzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (7. or.).
- Galdera, harrobi berriak ezartzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (7. or.).

G SAILA:

Txostenak, deialdiak, eta Parlamentuko informazioa:

- Nafarroako Parlamentuko Mahaiaren erabakia, abuztuaren 14koa. Haren bitartez, Nafarroako Parlamentuko egoitza berrirako altzarien hornidura adjudikatzen da (9. or.).
- Nafarroako Foru Komunitateko Arartekoaren Bulegoko 2002rako plantilla organikoa eta 2001eko abenduaren 31ko funtzionarioen zerrenda (9. or.).
- Deialdia, Nafarroako Kontuen Ganbararen zerbitzuko kazetari-itzultzaile izateko lanpostu huts bat oposizio bidez betetzekoa. Onartu eta baztertuen behin-behineko zerrenda (10. or.).

F saila:
GALDERAK

Galdera, Atarrabiako Lorenzo Goikoa ikastetxe publikoa banatzeari buruzkoa**FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Begoña Errazti Esnal andreak Atarrabiako Lorenzo Goikoa ikastetxe publikoa banatzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 2002ko apirilaren 15eko 35. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2002ko maiatzaren 6an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

EA/EAJ Parlamentuko Taldeko Eusko Alkartasuneko foru parlamentari Begoña Errazti Esnal andreak galdera egin du Atarrabiako Lorenzo Goikoa ikastetxe publikoa banatzeari buruz. Hona hemen Hezkuntza eta Kultura kontseilariaren erantzuna.

1. Foru Komunitateko Gobernuak aurreikusirik dauka "Lorenzo Goikoa" Haur eta Lehen hezkuntzako ikastetxe publikoa sortzea, Haur Hezkuntzako eskola publikoen, Lehen Hezkuntzako ikastetxe publikoen eta Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxe publikoen Erregelamendu Organikoa onesten duen otsailaren 10eko 24/1997 Foru Dekretuaren 2. artikuluari jarraikiz.

Aipatutako ikastetxearen sorrera juridiko administratiborako arrazoiak era askotakoak dira, batez ere bideak erraztea hizkuntza erkidego bakoitzak bere ahaleginak bidera ditzan proiektu pedagogiko berezkoak gauzatzera eta bere lana

oinarri dezan koherentzian eta autonomian eta eskaintzen duen hezkuntza aukeran sakontzean. Bestalde, "Lorenzo Goikoa II" ikastetxe berriak "Lorenzo Goikoa I" ikastetxearekin batera erabiliko ditu zenbait gune, elkarbizitza, tolerantzia eta elkarrenganako begirune helburuak erdiesteko.

2. "Lorenzo Goikoa" ikastetxeak hezkuntza eskaintza osatua dauka duela 13 urtetik, hizkuntza eredu desberdinekin. Ikastetxeko hezkuntza erkidegoaren zenbait sektorek baloratu eta egiaztatu dute hezkuntza errealitate eta proiektu bereziak daudela, eta bereizketa hori eskolako jardueretan eta eskolaz kanpokoetan islatzen da, baita patioaren eta jantokiaren erabileran ere, bi hizkuntza proiektu ezberdin egotean eta bi guraso elkarre desberdin egotean, ereduaren arabera. Errealitate horrek eragin du zuzendaritza taldeak eta guraso elkarteetako batek ikastetxe berri bat sortzeko eginiko eskaera, hezkuntza proiektuak autonomiaz mamitu ahal izateko. Horregatik guztiagatik, Hezkuntza eta Kultura Departamentuaren ustez komeni da Lorenzo Goikoa" ikastetxe publikoaren hezkuntza eskaintza berrantolatzea, erai-kin bakar batean bi ikastetxe bereizirik ezartzeko.

3. Espedientea otsailaren 10eko 24/1997 Foru Dekretuan xedatutakori jarraikiz tramitatzen ari da.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2002ko maiatzaren 3an

Hezkuntza eta Kultura kontseilaria: Jesús M^a Laguna Peña

Galdera, gizarteratze- eta laneratze-programa garatzeko lankidetzahitzarmenak sinatzeari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Isabel Arboniés Bermejo andreak gizarteratze- eta laneratze-programa garatzeko lankidetzahitzarmenak sinatzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 2002ko apirilaren 23ko 38. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2002ko maiatzaren 9an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeko foru parlamentari Isabel Arboniés Bermejo andreak galdera egin du gizarteratze- eta laneratze-programa garatzeko lankidetzahitzarmenak sinatzeari buruz. Hona hemen Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria kontseilariaren erantzuna, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluari eta hurrengo-ei jarraikiz.

1. Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuak asmorik al du lankidetzahitzarmenak izenpetzeko Lizarrako Udalarekin edo/eta gai honetan interesa duten beste udal edo mankomunitateekin, zerbitzua eta laneratze eta gizarteratzeko programa gauzatzeko profesionalen kontratazioa bermaturik egon dadin?

Lizarrako Barrutian oinarritzko osasun laguntza berrantolatzeko probako esperientzia abiarazteko prozesuan, Gizarte Ongizatearen Institutuak aurreikusirik dauka lankidetzahitzarmenak izenpetzea udal eta mankomunitateekin programen esperientziak gauzatzeko.

Laneratze eta gizarteratzeko programari dagokionez, aurreikusirik dago lankidetzahitzarmena izenpetzea Lizarrako Udalarekin eta neurriak hartzea Lizarrako barrutiko beste udal edo mankomunitate batzuk ere pixkanaka sartzen joan daitezzen.

2. Laneratze eta gizarteratzeko taldeetako profesionalen kontratazioa udal eta mankomunitateek ala Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuak egingen dute?

Laneratze eta gizarteratzeko programaren probako esperientzia aurrera eramateko lankidetzahitzarmen bat ezarriko da Nafarroako Pobreziaren aurkako Sareko kide diren entitateekin, eta haiek teknikariak jarriko dituzte.

Probako esperientzia horretatik ondorioztatu beharko dira, besteak beste, lanbideen ezaugarriak, lan edukia, programaren egitura, langileen atxikipena eta lotura, programa sendotzeko.

Hori jakinarazten dizut behar diren ondorioak izan ditzan.

Iruñean, 2002ko maiatzaren 2an

Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria kontseilaria: Calixto Ayesa Dianda

Galdera, Lizarrako eskualdea 2002ko martxoaren 7an zainketa berezien unitate mugikorraren zerbitzurik gabe egotearen zergatiari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Elena Torres Miranda andreak Lizarrako eskualdea 2002ko martxoaren 7an zainketa berezien unitate mugikorraren zerbitzurik gabe egotearen zergatiari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin agindu da. Galdera hori 2002ko apirilaren 23ko 38. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2002ko maiatzaren 13an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeko foru parlamentari Elena Torres Miranda andreak, 2002ko apirilaren 9an, galdera egin du Lizarrako eskualdea 2002ko martxoaren 7an zainketa berezien unitate mugikorraren zerbitzurik gabe egotearen zergatiari buruz. Hona hemen Osasun kontseilariaren erantzuna.

Lizarrako Barrutiko zainketa berezien unitate mugikorraren anbulantziak matxura izan zuen martxoaren 7ko 15:33an Zizur Nagusitik hurbil, gaixo bat Lizarrako Ospitaletik Nafarroako Ospitalera zeramala. Martxoaren 8ko 00:30etarako erabiltzeko moduan zegoen beste anbulantzia bat, ekipamendu osoarekin. Kontuan hartzen badugu anbulantziak ez zuela zerbitzura bueltatzerik 17:00ak baino lehen, anbulantzia operatiborik gabeko denbora zazpi ordukoa izan zen.

Lizarrako Ospitaletik berehala igorri zen abisua SOS Nafarroara, lehendabizi, gaixoa Nafarroako Ospitalera eramateko eta bigarrenik, egoeraren berri emateko. Era berean, harremanetan jarri ziren enpresaren arduradunarekin, arazoa konpon zezan. Prestazio eta Itunen Zerbitzuarekin eta harremanetan jarri ziren, gertatutakoa jakinarazteko eta eska zezaten matxuraturiko anbulantziaren ordezkia. Enpresaren arduradunari berriz hots

egin zioten zentroko zuzendaritzatik, 18:00etan, ordezkio anbulantzia bat galdatuz.

Lizarrako Ospitaleko Larrialdietako Zerbitzuak bi mediku alboko ditu, 08:00etatik 15:00etara bertan egon behar direnak, eta mediku alboko bat bertan egoteko guardia egiten duena sendagile egoiliar bat edo birekin 15:00etatik 08:00etara. Horrez gain, Larrialdietako Zerbitzuan zainketa berezien unitate mugikorreko langileak (sendagile bat eta OLT bat) egoten dira. Martxoaren 7an, Lizarrako Ospitaleko Larrialdietako Zerbitzuko hornikuntza ohikoa zen. Zainketa berezien unitate mugikorreko langileak 18:30ean itzuli ziren Ospitalera.

21:15ean enpresak beste anbulantzia bat igorri zuen Ospitalera. Ospitaleko Larrialdietako Zerbitzuko langileek eta zainketa berezien unitate mugikorreko langileek goitik behera aztertu zuten anbulantzia eta atzera bidali zuten, ez baitzitzaien nahiko horniturik iruditu. Enpresak badu Gurutze Gorriaren anbulantzia bat ere; hura ere aztertu zuten Ospitaleko Larrialdietako Zerbitzuko langileek eta zainketa berezien unitate mugikorreko langileek eta horniduran zenbait aldaketa egin ondoren, behar bezala utzi zuten 00:30erako.

Gurutze Gorriaren anbulantzia, azaldu dugun bezala, enpresak jarri zuen eta Osasunbideak ez daki zein diren enpresa horren eta Gurutze Gorriaren arteko hartu-emanaren baldintzak edo ezaugarriak. Anbulantzia itundutako enpresaren anbulantzia ailegatu arte, hau da, martxoaren 8ko 11:30ak arte, egon zen Lizarrako Ospitalean. Anbulantzia horren baldintzak Lizarrako Ospitalean egon zen denboran egokiak izan ziren eman behar zuen zerbitzurako .

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2002ko maiatzaren 7an.

Osasun kontseilaria: Santiago Cervera Soto

Galdera, Lizarrako eskualdean zainketa berezien unitate mugikorraren zerbitzua behin-behinekoz emateko sinaturiko kontratuari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Elena Torres Miranda andreak Lizarrako eskualdean zainketa berezien unitate mugikorraren zerbitzua behin-behinekoz emateko sinaturiko kontratuari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 2002ko apirilaren 23ko 38. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2002ko maiatzaren 13an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeko foru parlamentari Elena Torres Miranda andreak, 2002ko apirilaren 9an, galdera egin du Lizarrako eskualdean zainketa berezien unitate mugikorraren zerbitzua behin-behinekoz emateko Ambulancias Navarra enpresarekin sinaturiko kontratuari buruz. Hona hemen Osasun kontseilariaren erantzuna.

Hil ala biziko larrialdietarako anbulantzien zerbitzua (LAMZ-ZIU) Lizarra aldean emateko Ambulancias Navarra enpresarekin ezarritako kontratua –2002ko urtarrilaren 1etik hasita urte bereko ekainaren 30era bitartekoa, edo egiten ari den lehia-ketaren ondorioz izenpetuko den kontratu berriak indarra hartu artekoa– zuzentzen duten adminis-

trazio baldintzak dira Tuteran aldeko hil ala biziko larrialdietarako anbulantzien zerbitzurako egun indarra duten berdinak, baita baldintza ekonomikoetan ere.

Baldintza horiek, laburbilduz, hauexek dira: kontratuaren indarraldiaren sei hilabeteetarako gehieneko zenbatekoa 59.276,64 eurokoa (9.862.803 pezetakoa) da eta baldintzak otsailaren 10eko 29/1997 Foru Dekretuak (LAMZ-ZIU) anbulantzietarako eskatzen dituenak dira.

2002ko martxoaren 27an argitaratu zen Nafarroako Aldizkari Ofizialean Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko zuzendari kudeatzaileak martxoaren 8an emaniko 371/02 Ebazpena, Iruñeko, Tuterako eta Lizarrako Osasun Eskualdeetarako hil ala biziko larrialdietako anbulantzien zerbitzua (LAMZ-ZIU) 2002. urterako kontratatze-ko gastua baimendu eta adjudikazio espedienteari hasiera ematen diona.

Era berean, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko zuzendari kudeatzaileak apirilaren 3an emaniko 565/02 Ebazpenaren bidez izendatu zen lehiaketa publikoan aritu behar den kontratazio mahaia.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2002ko maiatzaren 7an.

Osasun kontseilaria: Santiago Cervera Soto

Galdera, ospitaleetako larrialdi-zerbitzuetako itxarote-denborei buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Elena Torres Miranda andreak ospitaleetako larrialdi-zerbitzuetako itxarote-denborei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 2002ko otsailaren 26ko 17. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2002ko maiatzaren 13an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeko foru parlamentari Elena Torres Miranda andreak, 2002ko otsailaren 14an, galdera egin du Osasunbideako larrialdi-zerbitzuetako itxarote-denborei buruz. Hona hemen Osasun kontseilariaren erantzuna.

Itxarote-zerrendetako batez besteko denbora aldatu egiten da zentro batetik bestera, minutu batzuetatik 200 minutura bitarte.

Halere, kontuan hartu behar da batez besteko datuak direla; hau da, mutur batean zuzenean sartzen den eta berehalako laguntza jasotzen duen larrialdiko kasuak daude, eta beste muturrean garrantzirik gabeko prozesu bat dela-eta larrialdietara -horretara jotzeko premiarik gabe eta bere kasa erabakita- joaten diren gaixoen kasuak daude.

Larritasunaren araberako sistema bat dago gaixoak sailkatzeko; sistema horrek aukera ematen du erabakitzeko zeinek itxoin behar duen eta zenbat denbora, larrialdiko kasuak asko direnean batera.

Beharrezkoa da kontuan hartzea ospitaleetako zerbitzuetatik bideratzen diren ospitaleratzeen

urteko portzentajea, ondoko taula honetan adierazita:

Sarea	2001	
	Jarduera	%
Anbulatorioetako larrialdiak	205.678	% 86
Larrialdietatik ospitaleratuak	33.517	% 14
Larrialdiak, guztira	239.195	% 100

Nafarroako ospitale publikoetako larrialdi zerbitzuen eskaeraren bilakaera azken hiru urteetan hauxe izan da:

2. Larrialdien bilakaera

LARRIALDIAK, guztira	1999	Alderatuta 00/99	2000	Alderatuta 01/00	2001
Lizarrako Ospitalea	20.080	% 6,34	21.354	% -0,35	21.279
Tuterako Ospitalea	35.155	% 5,97	37.255	% 9,69	40.866
Nafarroako Ospitalea	57.486	% -0,54	57.173	% 0,63	57.531
Bideko Ama Birjina Ospitalea	114.952	% 0,99	116.090	% 2,95	119.519
Sarea, guztira	227.673	% 1,84	231.872	% 3,16	239.195

- Babestutako populazioaren gehikuntza
- Herritarren espektatibak
- Herritarren erabaki librea
- Eskuragarritasuna

Nabarmendu beharra dago artaturiko larrialdiko kasuak/larrialdietatik ospitaleratutakoak portzentajeak ez duela gorabehera handirik.

Larrialdietako zerbitzuak gaixoez gainezka ez egoteko eta itxoiteko denbora gutxitzeko soluzioa ez da zerbitzu horien egitura handitzetik etorriko, oro har ongi horniturik baitaude, baizik eta herritarrei, osasun arazo arruntei aurre egiteko ohiko baliabideak erabilaraztetik, ospitaleetako larrialdi zerbitzuak utz ditzaten benetan behar denerako:

goi mailako kalifikazio eta teknologia eskatzen duten patologiez arduratzeko; hain zuzen ere, larrialdietako zerbitzuak erabiltzeko moduan egon behar dute eta garrantzi gutxiko prozesuak tratatzeak ekar dezakeen gehiegizko erabilera baztertu beharra dago, baita herritarrei hil ala biziko edo ezgaitasuneko arriskurik ekartzeko modukoak ez diren kasuetarako ospitaleetako larrialdietako zerbitzuetara jotzea ere.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2002ko apirilaren 19an.

Osasun kontseilaria: Santiago Cervera Soto

Galdera, Fustiñanako Hidronor zentroan hondakinak tratatzeari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak Fustiñanako Hidronor zentroan hondakinak tratatzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 2002ko martxoaren 27ko 32. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2002ko maiatzaren 14an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeko foru parlamentari Juan José

Lizarbe Baztán jaunak Hidronor enpresak Fustiñan duen zentroan hondakinak tratatzeari buruz galdetu eta idatzizko erantzuna eskatu du. Hona hemen Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilariaren erantzuna.

Galdera horri 2002ko apirilaren 17ko idatzkieren bidez eman zitzaion erantzuna.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2002ko maiatzaren 13an

Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilaria: Jesús Javier Marcotegui Ros

Galdera, harrobi berriak ezartzeari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari José M^a Aierdi Fernández de Barrena jaunak harrobi berriak ezartzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 2002ko apirilaren 23ko 38. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2002ko maiatzaren 15ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

EA/EAJ-PNV Parlamentuko Taldeko Eusko Alkartasunako foru parlamentari José Mari Aierdi Fernández de Barrena jaunak harrobi berriak ezartzeari buruz galdetu eta idatzizko erantzuna eskatu du. Hona hemen Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilariaren erantzuna.

1º. Hauexek dira, une hauetan, Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuan administrazio tramitazioan dauden eskabideak harrobi berriak ezartzeko:

Sustatzailea	Ustiapena	Alderdia	Udala
Pedro Mendiburu Gortari	Hareharria	Goiko-eskiz (Azpilkueta)	Baztan
Valentin Gamio Garbisu	Hareharria	Goiko-eskiz (Azpilkueta)	Baztan
Gregorio Martinez S. A.	Legarra	Ulaga	Viana
Murillo el Frutoko Udala	Legarra	La Viñaza	Murillo el Fruto
Keslar S. A.	Buztina	Aizpidea (Zubielki)	Allin
Cerámica Tudelana S.A.	Buztina	Las Labradas	Tutera
Gregorio Martinez S. A.	Legarra	El Portón	Viana

Proiektu horiek guztiek ez dute oraindik jaso Ingurumen zuzendari nagusiak eman beharreko jarduera sailkatuaren gaineko ebazpena.

Kokaleku berrietarako baimena ematerakoan ingurumenaren gaineko eragina baloratzen da, jarduera sailkatuei buruzko araudi indarduna aplikatuz, 16/1989 Legean ezarritakoarekin bat eta, beharrezkoa denean, ingurumenaren gaineko eraginaren azterlanari buruzkoa, 6/2001 Legean ezarritakoari jarraikiz.

3º Ingurumenaren gaineko eraginaren azterlanerako prozedurak ingurumenaren gaineko kalte-

ak ez ezik jarduerak ezarri nahi diren tokien garapen sozioekonomikoan izan ditzaketenak ere baloratzen ditu.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2002ko maiatzaren 10ean

Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilaria: Jesús Javier Marcotegui Ros

G Saila:**TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA****Nafarroako Parlamentuko Mahaiaren erabakia, abuztuaren 14koa. Haren bitartez, Nafarroako Parlamentuko egoitza berrirako altzarien hornidura adjudikatzen da**

Nafarroako administrazio publikoen kontratuei buruzko ekainaren 16ko 10/1998 Foru Legearen 97.3 artikulua betez, iragartzen da Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2002ko abuztuaren 14an hartutako Erabakiaren bidez, honako kontratu hau adjudikatu duela:

– Kontratuaren xedea: Nafarroako Parlamentuko egoitza berrirako altzarien hornidura.

– Mota: prozedura irekia.

– Lotea, adjudikazio-hartzailea eta kontratuaren prezioa:

LOTEA	ADJUDIKAZIO-HARTZAILEA	ADJUDIKAZIOAREN ZENBATEKOA
1	M40 EQUIPAMIENTOS, S. L.	11.216,04
2	M. ^a BEGOÑA ARRECHE CLEMENTE (MBA)	18.008,00
3	ASIER MOBILIARIO, S. A.	34.315,48
4	M40 EQUIPAMIENTOS, S. L.	105.186,48

5	PAYMO, S. A.	10.886,00
6	PAYMO, S. A.	27.654,00
7	M40 EQUIPAMIENTOS, S. L.	58.254,64
8	M40 EQUIPAMIENTOS, S. L.	37.481,27
9	MUEBLES BORDONABE, S. A.	35.180,23
10	M40 EQUIPAMIENTOS, S. L.	13.579,19
11	PAYMO, S. A.	114.865,74
12	ASIER MOBILIARIO, S. A.	27.490,84
13	PAYMO, S. A.	69.690,75
14	PAYMO, S. A.	8.686,50
15	M40 EQUIPAMIENTOS, S. L.	38.724,28
16	MUEBLES BORDONABE, S. A.	14.194,05
17	MONTTE, S. L.	3.398,24
18	MONTTE, S. L.	90.021,33

Iruñean, 2002ko abuztuaren 14an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Nafarroako Foru Komunitateko Arartekoaren Bulegoko 2002rako plantilla organikoa eta 2001eko abenduaren 31ko funtzionarioen zerrenda

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2002ko abuztuaren 14an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Ikusirik Nafarroako Arartekoaren 2002ko uztailaren 24ko ebazpena, zeinaren bitartez bertako 2002rako plantilla organikoa eta 2001eko abenduaren 31ko funtzionarioen zerrenda igortzen baitira, urtarrilaren 1etik aurrerako eragina izateko onets daitezten. ERABAKI DA:

1go. 2002ko urtarrilaren 1etik aurrera eragina izan dezaten, Nafarroako Arartekoaren Bulegoko 2002rako plantilla organikoa eta erakundearen zerbitzuan 2001eko abenduaren 31n lanean ari diren funtzionarioen zerrenda onestea, ondotik datozen 1 eta 2. eranskinen arabera.

2gn. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara daitezten agintzea.

Iruñean, 2002ko abuztuaren 16an.

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

1. ERANSKINA

Nafarroako Foru Komunitateko Arartekoaren Bulegoko 2002rako plantilla organikoa

Lanpostua	Zenbakia	Araubide juridikoa	Maila	Izendapen librea	Lanpostua	Mailaren osagarria
Arloko aholkulari arduraduna (*)	2	C	-	X	-	-
Aholkulari teknikoa	1	C	-	X	-	-
Arartekoaren Idazkaritza	1	G	-	X	-	-
Administraria	2	F	C	-	31,68	12
Gelazaina	1	F	D	-	22	15

F Funtzionarioa

C Arartekoaren behin-behineko kargua – izendapen librea

G Kabineteko behin-behineko langilea – izendapen librea

(*): Arartekoaren egungo aholkulariek hemendik aurrera arloko aholkulari arduradun izena hartuko dute.

2. ERANSKINA

Nafarroako Foru Komunitateko Arartekoaren Bulegoaren zerbitzuko 2001-12-31ko funtzionarioen zerrenda

Izen-abizenak	Maila	Gradua	Lanpostua	Egoera administratiboa
Echeverria Uhalte, Celina	C	6	Administrari ofiziala	Aktiboa

Deialdia, Nafarroako Kontuen Ganbararen zerbitzuko kazetari-itzultzaile izateko lanpostu huts bat oposizio bidez betetzekoa

Onartu eta baztertuen behin-behineko zerrenda

2002ko abuztuaren 19ko Ebazpena, Nafarroako Kontuen Gabarako Lehendakariarena. Haren bidez, Nafarroako Kontuen Ganbararen zerbitzuko kazetari-itzultzaile izateko lanpostu huts bat oposizio bidez eta txanda irekian betetzeko deialdian onartu eta baztertu diren izangaien behin-behineko zerrenda onetsi da.

Nafarroako Kontuen Ganbararen zerbitzuko kazetari izateko lanpostu huts bat, itzultzaile eginkizunak ere badituena, oposizio bidez betetzeko deialdiaren 4. oinarriko 1. idatz-zatian ezarritakoaren arabera –deialdia bertako lehendakariaren 2002ko ekainaren 10eko ebazpenaz onetsi zen–, behin eskabideak aurkezteko epea bukatu, bidezkoa da deialdian onartu eta baztertu diren izangaien behin-behineko zerrenda onetsi eta hura Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Horrenbestez, lehendakaritza honek erabaki du:

Lehena.- Nafarroako Kontuen Ganbararen zerbitzuko kazetaria izateko lanpostu huts bat, itzultzaile eginkizunak ere badituena, oposizio bidez eta txanda irekian betetzeko deialdian onartu eta baztertu diren izangaien behin-behineko zerrenda onestea. Hona zerrenda hori:

a) Onartuak:

Aranguren Arsuaga, Eva

Errea Irisarri, Alberto

Erbiti Zabalza, Fermín

Goyeneche Urrutia, Iosu

Olaiz García, Idoia

b) Baztertuak:

Garmendia Urtizberrea, M.^a Josefa

Eskabidea deialdiko 3. oinarrian aipaturiko epeaz kanpo aurkezteagatik.

Bigarrena.- Xedatzea ezen deialdiko 4. oinarriko 2. idatz-zatian ezarritakoaren arabera, behin-behineko zerrenda Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara eman eta hurrengo hamar egun balioduneko epean erreklamazioak aurkeztu ahal izanen dituztela baztertutako izangaiek.

Hirugarrena.- Ebazpen hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2002ko abuztuaren 19an.

Lehendakaria: Luis Muñoz Garde

HARPIDETZAREN PREZIOA ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA	IDAZLARITZA ETA ADMINISTRAZIOA NAFARROAKO PARLAMENTUA «Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala» Arrieta 12, 3 31002 IRUÑA
Urte bat 39,07 euro	
Aldizkari Ofizialaren aleko prezioa 0,96 »	
Bilkura Egunkariaren aleko prezioa 1,14 »	